

PELLO ZUBIRIA

## Brasilgo Belemen kapitalismo-ostea irudikatuko dute

Urtarrilaren 27tik otsailaren 1era mundu osotik iritsitako milaka militante altermundialista bilduko dira Brasilgo Belem hirian, Amazoniarako atarian. Munduko Gizarte Foroaren bederatzigarren biltzarra une oso berezian agituko da: kapitalismoa krisi betean murgilduta dagoenean.

PARÁ ESTATUKO (BRASIL) BELEM hirian urtarril honen akaberan bilduko diren altermundialistek poz bat ekarriko dute sakelean: arrazoi zute-la. Sistema kapitalista goia jota zegoela, alegia. Gaurko krisia sistemikoa dela aitortzen dute orain aditu zuhurrenek ere. Baina nola jokatu krisiaren ondorengo mundua aurrekoa baino are ikaragarriagoa gerta ez dadin? Horretaz eztabaidatuko dute Munduko Gizarte Foroan (MGF), urtarrilaren 27tik otsailaren lehenera.

2001ean hasita, urtero elkartzten da MGF urtarriletan. Egun horietan militanteon etsai nagusiak, kapitalismoaren estrategiak aztertu eta antolatzen dituzten buruzagiak, Suitzako Davos-en bildu ohi dira Munduko Ekonomi Foroan. Davoserako sarbidea galarazten zaienez, globalizazioaren edo mundializazioaren kontrako mugimenduak munduko beste nonbait saiatzen dira burrunba entzunarazten, munduaren jabeen aurkako alternatibak partekatuz.

Orain arte bederatziz MGF burutu dira, Porto Alegren egindako lehentik hasita gehienak Brasilen. 2001eko hartara kronikak diote 12.000 partaide azaldu zirela mundu osotik. Babesleak Brasilen indarrean zeterren Lularen Langileen Alderdia eta Porto Alegreko gobernua ziren. Bertan egin ziren ondoko bi MGFak, 2002koa eta 2003koa. 60.000 jende-

ren kopurua gainditu zen eta foroaren oihartzuna izugarri zabaldu.

Laugarrena, 2004koa, Indiako Mumbain eratu zuten eta 2005ekoa berriro Porto Alegren, 150.000 partaidetara iritsiz. 2006koa, “polizentrikoa”, hiru hiritan ospatu zen: Venezuelako Caracasen, Maliko Bamakon eta Pakistango Karatxin. 2007an Nairobien egindako zazpigarrena izan da orain arteko azkena. Baita polemikoena ere, Afrikako gizarte mugimenduek gogor salatu zutelako MGF beren nahieran darabilte herrialde aberatsetako Gobernu Kanpoko Erakundeek. 2008koa mundu osoan nork bere inguruan ospatu zuen, *Global Call for Action* edo Ekintzarako Deialdi Globala.

Bederatzigarren MGFa Amazonas eskualdearekin lotu dute. Brasilera itzuli bai, baina Porto Alegren errazkerian erortzeari ihes eginda. Antolaketa lanak bertako 13 erakundek osatutako batzorde baten *Facilitation Group* esku geratu dira, lan-taldeotan banatuta: komunikazioa, metodologia, erlijioen artekoa, mobilizazioa, kultura eta gazteen kanpalekua.

Mundu mailako ekitaldien ondoan, Pan-Amazoniako adarrak bere biltzarrera burutuko du, gai honen inguruan: “Afro-indigenen eta mugimendu herrikoien 500 urteko erresistentzia, lorpen eta itxaropenak”.

Gainerakoan, MGF guztietan

Argazkikoak Via Campesinako ordezkariak dira, artaburuak eskuetan, Merkataritzako Mundu Erakundearen eta transgenikoen kontrako aldarrikapenak aurkezten 2007ko Mumbaiko Munduko Gizarte Foroan. Erakunde honek mamitu duen kultura honela definitu du Antonio Martinsek: “Kultura politiko berri honek ez du aintzat hartzen aldaketa gerta dadin instituzioetan agintea hartzea zentrala denik. Ezta ordezkartza ere, hau da, gure proiektu berriekiko nahia adierazteko alderdi politiko bati, botoz bezala intsurrekzioz, gure ordezkartza uztea. Forotara datorren jendeak nagusiki uste du politika urtearen 365 egunetan egin behar dela, ekintza lekuko eta txikien bidez bada ere. (...) Ez du jerarkiarik onartzen, naturarekiko harreman berria gura du”.

bezala Belemgoan ere forum paralelo gehiago izango dira, era autonomoan organizatutakoak. Batek Amazonasko agintari lokalak bilduko ditu estreina-ko aldiz. Belemen elkartzeko dira ere Munduko Hezkuntza Foroa, Munduko Epaileen Foroa, Munduko Parlamentariena, Zientzia eta Demokrazia Foroa eta Askapen Teologiarena.

### Amazonia, drama eta itxaropen

Pará estatuko Belem hautatu izanaren esanahiaz eta 2009ko MGFak argitu behar dituen arazo nagusiez Sergio Ferrari kazetariari mintzatu zaio Antonio Martins, kazetaria hau ere eta gizarte mugimenduko militantea, Brasilgo ATTACen sortzaileetakoa, *Le Monde Diplomatique* Brasilera –internetez– daukan bertsioaren zuzendaria. *Kaosnared* gunean argitaratu da solasa.

Belem zergatik hautatu den esplikatzeko Martinsek –MGFaren nazioarteko batzordean dago– arrazoi bat nabarmendu du: Amazoniak ikurtzat daukan balioa.

Amazonian beste inon baino basatiago ageri omen da kapitalismoaren indarra, oihanaren suntsitzea, ingurunea birrintzea, baserriar eta indigenak erailteza, krimen antolatua, latifundismoa, estatuen ahuldadea... Baina horrekin batera, Martinsentzako “Amazoniak erakusten du gizakiaren eta naturaren



ez badugu, arriskua dago jendeak ultra-eskuineko posizio sinplistetara jotzeko alternatiba bila”.

Ziklo ekonomiko berriak dagoeneko erakutsi du belarria: jende gehiago lanik gabe, produkzio sarearen berregituraketa, eskubide sozialen galera, produkzioa urrutira lekutzea... Faxismoa, xobinismoa eta arrazismoa hor zeuden beroaldi ekonomikoan, eta izozteak indartu ditzake. Aldi berean, altermundialistek kapitalismoaren balioen gezurraz ziotena egia suertatu da. Ikusi baizik ez dago nola babestu diren amatxo estatuaren magalean neoliberal guztiak finantzak hankaz gora jarritakoan.

Altermundialistak gaztetxo harrapatu ditu krisiak. Lehen mespretxatu zituztenek orain erantzun finduak eskatuko baitizkiete. “Badakigu –Martinsen hitzak– posible dela post-kapitalismoaren haziak loratzea sistema indarrean egonik ere; logika alternatiboak landu daitezkeela; batzuetan lokalgi edo ingenuo izanik ere, milaka eraldatze ekintza egin eta mundu mailako ekintza sendo bihurtu behar ditugula; subjektu sozial askok hartu dezaketela parte horretan. Galdera da: krisiarentzako gure erantzunak multiplikatzeo gai den masa kritikoa biltzeko ahalmenik ba ote dugu dagoeneko?”.

Bestelako mundua eskatzenetik eraikitzena dagoen aldeia izanen da aztergai Amazoniako Belemen. ■

[www.argia.com/nethurbil.php](http://www.argia.com/nethurbil.php)  
helbidean, gai honi buruzko informazio  
gehiago eta Interneteko loturak.

arteko bestelako harremana antolatzeko posibilitatea”. Alegia, basoa bizirik dagoela oraindik %80an, mugimendu zibilak indartsu daudela, emakumeen erakundeak tartean, indigenenak, kooperatibak, nekazaritza organikoak, bidezko merkataritza, eta abar. “Laburtuz, Amazonia da gaur planetaren suntsiketaren ikurra, klimaren suntsiketa handiagok iragartzen dituen, baina aldi berean zibilizazio post-kapitalista posible dela ere iragartzen du”.

Mundu osoa kutsatu duen krisi ekonomikoak eta bere ondorioek izan behar dute, derrigor, Belemgo MGFko gai izarrak. Gauza garrantzizko bezain bitxiak gertatu baitira hilabeteotan. Nabarmenena, estatuak bankuen eta korporazio han-

dien salbatzeko diru pila itzelak gastatzen ikustea. Estatuak, planetako txiroenen gosea eta gaixotasunak arintzeko mugimendu sozialek dirua eskatzen zutenean aski diru ez zeukatela erantzuten zieten estatu horiek, orain martxan jarri dituzte biletak inprimatzeko makinak sistema salbatzeko.

Horren aurrean, altermundialista askok moduan, Martinsek kultura politiko berria aldarrikatzen du: “Salatzea lehenesten zuen kultura politikoak gaingitu beharra daukagu, horrek aldaketak uzten baizituen agintea hartuko omen genuen egunerako. (...) Jendea larri dago eta erantzun zehatzak nahi ditu. Erantzunik ez badugu eskaintzen, sistema salatu baina irteerarik erakusten

**AKELARRE**  
RESTAURANTE

Padre Orkolaga 56 · 20008 DONOSTIA · Tel.: 943 21 20 51  
comunicacion@akelarre.net · www.akelarre.net